


2013/2014

© 2014, Jone Landa



Bizkaiko gerraosteko lehenengo ikastola: Lehenengo andereñoaren eta ikaslearen kontaketa

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Jone Landa Garai

Tutorea: Begoña Bilbao

Leioan, 2014ko ekainaren 9an

Lehen Hezkuntzako Gradua 4. Maila
Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Aurkibidea

0. Abstract.....	2
1. Sarrera.....	3
2. Esparru Teorikoa.....	4
2.1. Aurrekariak	4
2.2. Gerraurrea eta gerraosteko eskolen arteko zubia: Donostiako Etxe-eskolak .	4
2.3. Gerraosteko Bizkaiko lehen eskola: Maria Angeles Garai	6
2.4. Bilboko lehen eskolaren legalizazioa	8
2.5. “Resurrección Maria de Azkue” Ikastola.....	11
2.6. Lauro ikastola	12
3. Metodologia.....	16
4. Lanaren garapena.....	17
4.1. Maria Angeles Garai	17
4.2. Maria Paz Basagoiti	20
4.3 Bi garaiak konparatzen	21
4.4. Emakumeak eta Hezkuntza	22
5. Ondorioak	23
6. Erreferentzi Bibliografikoak.....	25
7. Eranskinak.....	26

0. Abstract

Gradu Amaierako Lan hau gerraosteko Bizkaiko lehen ikastolari buruzko ikerketa lan bat da. Atal teorikoan, ikastolaren aspektu formalak landu izan dira, legeak izan zituen eraginak eta ikastola beraren aldiak. Lanaren garapenean, ikastola horren eguneroko bizitza aztertu da, horretarako, bi pertsonaren esperientziak erabili dira. Lehenengoa, ikastola horretako lehen andereñoa izan da, M^a Angeles Garai, eta bigarrena M^a Paz Basagoiti, ikaslea. Bi testigantzak entzunda, lehenengo ikastola hobeto ezagutzeaz gain, euskararen egoera aztertu da; baita garai hartako ikastola eta gaur egungo ikastolaren arteko desberdintasunak ere. Horretaz gain, emakumeek lehenengo ikastolaren sorkuntzan egindako lanari buruz, hitz egin da.

Ikastola, Andereñoa, Emakumea, Euskara

Este Trabajo de Fin de Grado es una investigación acerca de la primera Ikastola después de la Guerra Civil en Bizkaia. En la parte teórica, se han trabajado los aspectos más formales de la Ikastola, la repercusión de la ley en esta y las diferentes etapas que se vivieron. En el desarrollo del trabajo se ha profundizado más a fondo en el día a día de la ikastola, gracias a los testimonios de la primera profesora del centro, M^a Angeles Garai y a la alumna M^a Paz Basagoiti. También se ha meditado entorno a la situación que vive el euskera en las ikastolas y la diferencia entre la primera ikastola y la de hoy en día. Además, se habla del trabajo que hicieron las mujeres para crear la primera ikastola.

Ikastola, Señorita, Mujer, Euskera

This degree thesis is an investigation about the first Ikastola after the Civil War in Bizkaia. In the theoretical part, formal aspects such as the impact of the law and the different stages of the Ikastola were analyzed. The development of this thesis was based on some daily issues of the Ikastola thanks to the testimonies of one of the first teachers of the Center, M^a Angeles Garai and one of her students, M^a Paz Basagoiti. These two testimonies have helped to understand the way the first Ikastolas were like, the situation of the Basque language as well as the difference between the actual Ikastolas the ones working those days. Last but not least, this thesis has focused on the important work of women during the first steps of the Ikastolas.

Ikastola, female professor, Woman, Euskera

1. Sarrera

Lan honetan zehar, Bizkaiko gerraosteko lehen ikastolaren sortze prozedura ikusiko dugu. Atal teorikoan, ikastola sortzearen aurrekariak aztertuko ditugu; baita ikastolak eduki zituen garai ezberdinak eta lehenago Espainiako Gorteetatik eta geroago Eusko Jaurlaritzatik egin ziren lege aldaketek, ikastolan izan zuten ondorioa.

Metodologia atalean, lana aurrera ateratzeko jarraitu diren pausuak eta estrategiak agertuko dira. Lan hau ikerketa lan bat izan da, gure historiaren alderdi bat aztertu dugulako, horretarako erabili diren liburuak eta elkarrizketa motak azalduko dira bertan.

Garapenean, ikastola horretako lehenengo andereñoarekin eta legeztatuko lehenengo ikastolako ikasle batekin ibili gara hizketan. Honi esker ikastolaren barrukaldeak aztertu ditugu, liburuak ekartzen duenaz haratago joan gara, protagonisten istorioak eta sentimenduak, aztertuz.

Ateratako ondorioak, hausnarketak izan dira. Testigantza hauek entzun ostean, beraien iritzia jasota atera diren ondorioak. Batez ere, gaur eguneko ikastolarekin lotuta, euskararen egoera edo emakumearen lanaren errekonozimendua.

Lanaren gai nagusia Emakumeak eta Hezkuntza bazen ere, lehenengo ikastola honetan zentratu nahi izan dut Gradu Amaierako Lan hau. Emakume horiek lan egiten hasi zirelako, gaur egun guk ikastoletan lan egin dezakegu.

2. Esparru Teorikoa

2.1. AURREKARIAK

Gerraurrean kokatuko gara Bizkaiko lehenengo ikastolei buruz hitz egiteko. 1868.urtean Resurrección Maria de Azkue “ikastechea” sortu zen Bilbon. Horrela 1908 eta 1914.urteetan beste eskola batzuk sortu ziren, hirian bertan . Gerra hasi baino lau urte arinago, 1932an, Eusko Ikastolen Batzak, eskola gehiago zabaltzeko erabakia hartu zuen, euskalduntasuna eta erlijioa oinarri moduan hartuta. Hala ere, baina eskola hauek gutxi iraun zuten. Aurretik diru laguntza urriak bazituzten, Gerra Zibilarekin, euskal mugimendu guztia ezer-ezean gelditu zen eta ikasle eta irakasle askok erbestera joan behar izan ziren.

Garai honetan, nazionalismo tradizionalak adierazten zuen bezala, emakumearen eginbeharra familiaren barnean kokatzen zen, bere eginbeharra familiaz arduratzea baitzen. Hala ere II. Errepublika garaian umeeen lehenengo sozializazioaz arduratzetik, bigarren sozializazioaz arduratzerara pasatu zen, eremu pribatua gaindituz. Honi esker emakume taldeak sortu ziren, hezkuntza-lanetan ibili zirenak. Horiatariko talde bat Emakume Abertzaleen Batza izan zen. EAB 1922.urtean EAJ/PNV ko emakumeak sortu zuten elkarte nazionalista izan zen. Jaungoikoa eta lege zaharra eta euskara zuten oinarri moduan eta irakaskuntza eta heziketa alorrean lan handia egin zuten. Talde honen partaide auzo-eskoletako eta beste eskoletako maistrak ziren.

2.2. GERRAURREA ETA GERRAOSTEKO ESKOLEN ARTEKO ZUBIA: DONOSTIAKO ETXE-ESKOLAK

Esan bezala, gerrarekin, euskaldun hitzarekin zerikusia zuen guztia zapalduta geratu zen eta edozein euskal adierazpen kartzelarekin zigortuta zegoen. Hala ere, emakume taldeek ez zuten zuzenean errepresaliarik jaso. Honi esker euskal kultura eta ideologia birsortu al izan zen gerra ostean.



1. Elvira Zipitria
(Euskomedia)

EAB lan egiten zebilen emakume horietako bat Elvira Zipitria izan zen. Zipitria irakaslea zen profesioz eta II Errepublika garaian Donostiako lehen ikastola sortu zuen Alde Zaharrean. Gerra garaian Sarara ihes egin zuen eta bueltan Donostiako familien seme-alabei euren

etxeetan klaseak ematen ibili zen 1946.urtera arte.

Urte horretan, bere etxe eskola ezarri zuen hirian. Zipitria ez zen berria esperientzia honetan, baina oraingoan, euskara eta euskal kultura debekatuta zaudenez, ezkutuan egin behar izan zuten lan. Euskal eskola berriak eratu zituen eta horregatik esan dezakegu, Zipitriak gearraurreko eta gerraosteko eskolen arteko zubia eraiki zuela.

Andereño hau ezaguna zen Donostian, horregatik, lehen etxe-eskola ireki zuenean, hainbat eskaera izan zituen. Horrela, eskaerak gora joan ahala, etxe eskola berriak ireki ziren Donostian. Proiektu honetarako gurasoen laguntza eduki zuen, baita Emakume Abertzaleen Batza-rena ere.


Elkarte honek zuen emakume sareak, asko lagundu zuen Zipitriaren eskola berrian. Izan ere, ideologia berbereko harreman zirkulu bat eratu zuen, lan egiterako orduan, etxe-eskola berriak irekitzerako orduan eta ikasle zein irakasleak bilatzerako orduan, hainbat lagundu zuena.

Eskola hauetan klaseak emateaz gain hainbeste ekimen egiten zituzten, gehienetan eskolako ama eta andereñoak antolatuta: Helduentzako alfabetatze klaseak, Gabon jaiak, Txangoak, Euskarazko jaunartzeak, Euskal liburuen argitalpenak... Oso garrantzitsua zen beraz, emakumeen papera garai honetan. Familia barruan hizkuntza eta hezkuntzaz arduratzen zen eta Idoia Fernandezek Oroimenaren Hitza liburuan esaten duen bezala, garaiko emakumeen lana funtzio tradizionalaren luzapen bat izan zela esan dezakegu.

Gipuzkoan etxe eskolak arrakasta handia izan zuten eta eskariak zirela medio, zentro berriak zabaldu behar izan zituzten irakasle desberdinek, bai hirian bertan zein herri txikietan.

2.3. GERRAOSTEKO BIZKAIKO LEHEN ESKOLA: MARIA ANGELES GARAI**San Nikolas elizan**

Xabier Peña, idazle eta pedagogo Tolosarra, Bilbora heldu zen Donostiako esperientzia ezagututa. Bertan Maria Angeles Garai ezagutu zuen, Peñak ematen zituen alfabetatze klaseetan. Maria Angeles Garai, irakasle Bilbotarra zen, karrera amaitu berri zuena.



2. M^a Angeles Garai
andereño moduan
hasi zenean
(Bizkaiko
Ikastolak)

1956ko irailean, Munduko Euskal Biltzarra¹ ospatu zen Parisen. Bertan, M^a Angelesek Donostiako etxe-eskolen esperientzia ezagutu zuen, Elvira Zipitriaren eskutik.

Urte bete beranduago martxan zen Bilboko lehen ikastola. Xabier Peña zen bultzatzaile nagusia eta M^a Angeles Garai andereñoa. Ikastola Bilboko San Nikolas elizan dauden geletan ezarri zuten. Ikasturte horretan 13 bat ikasle hasi ziren. Kurtsoa aurrera zihoala ikasle gehiago gehitu ziren eta 27rekin bukatu zuten ikasturtea.

Baina arin bukatu zen San Nikolaseko esperientzia, izan ere Apezpikuak eskola hori bertan behera uzteko agindu zuen.

Iralabarrin

Irakasteko lekurik gabe, beste lokal bat bilatu zuten eskolako partaideak, hau da, gurasoak, andereñoak eta Xabier Peñak. Leku hori Iralabarrin aurkitu zuten, Frantziskotarren etxe-konbentuan. Bertan 1958-1959. urteko ikasturtea eman zen. Kurtso honetarako 48 ikasle zeuden eskolan eta horregatik andereñoa kopurua ere handitu zen. M^a Carmen Gangoiti Gamiz-Fikatarra, Severiana Mardaraz mungiarra eta M^a Estivaliz Lopez de Gereño Bilbotarra ziren irakasleak.

¹ Munduko Euskal Biltzarra: 1956ko irailaren 23tik 29ra, Euskal Herriaren egoeraz hausnartzeko Parisen ospatu zen biltzarra, ordezkari politiko, sindikal eta kulturalak bildu zituena. Umeentzako euskarazko irakaskuntzaren beharra ikusi zen.

Hala ere, Iralabarriko esperientzia honek ez zuen asko iraun. Inspektorearen bisita baten ondorioz, lokala itxi egin zuten euskaraz idatzitako testuak aurkitu zituztelako. Honen ondorioz, irakasleak epaitegira eraman zituzten, baita Sabin Zubiri ere, eskolako gurasoen sustatzailea.

Etxe Eskoletan

Egoera honetan, hainbat gurasok bide desberdinak hartu zituzten, eskolen proiektuarekin zeuden oztopo guztiak ikusita. Guraso askok eskola erlijiosoetan matrikulatu zituzten seme-alabak, Eskolapiosen edo Jesuitetan adibidez. Baina beste batzuk, batez ere ume txikiak zituzten gurasoak, proiektuarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten.

Momentu honetan etxe-eskolen garaia hasi zen Bilbon, eskolak bizitexetean antolatzen hasi zirelako. Etxe-eskolek 5 ikasturte iraun zuten, 1960. urtetetik, 1965. urtera arte.

Baina ezin dezakegu garai hau azaldu Julia Berrojalbizen izena aipatu gabe. Juliak lehenengo urteetatik parte hartu zuen eskolan. Irakaslea zen profesioz eta emakume talde bat sortu zuen eskola hau eta etorkizunekoak bultzatzeko. Bera izan zen ere, umeek euskaraz ikasten jarraitu ahal izateko, etxebizitzak bilatu eta koordinatu zituena eta horregatik esan dezakegu, mugimendu honen zuzendaria bilakatu



3. Julia Berrojalbiz
(Bizkaiko Ikastolak)

zela. Julia Berrojalbizekin batera, Tere Rotatetxe ere, aipatzeko da, Juliarekin batera egin zuen lanagatik.

Etxe gehienak oso iraunkortasun laburra izaten zuten, bi-hiru hilabete soilik iraun baitzuten, horregatik hainbat etxe behar izan ziren hirian zehar, klaseak eman ahal izateko. Gurasoei beharrian hauek azaldu zizkietenean, erantzun modura, etxe eskaintza egon zen hauen eskutik. Etxe hauetako gelak oso txikiak ziren eta horregatik etxe bakoitzean ume gutxi zegoen.

Lehenengo etxebizitzak maistren etxeetan edo Bilboko familien etxeetan antolatu ziren. Madariaga-Markoartu familiaren etxean Agurtzane Alberdik



4. Estibaliz Gereñoa klaseak ematen bere etxean (Bizkaiko Ikastolak)

ematen zituen klaseak, Sendejo kaleko 6 zenbakian. Severiana Mardarasek Markoartu-Rotaetxeren etxean antolatu zuen eskola, Canpo Volantinen eta Estibaliz Gereño eta M^a Angeles Garai andereñoek beraien etxeetan ematen zituzten klaseak.

Denborarekin etxe eskola gehiago ireki ziren, Bilbon 10-12 eskola. Eskola berri hauek, seme-alaben hezkuntzarekin arduratuta zeuden gurasoek zabaltzen zituzten. Eskola berriak zabaltzean, andereño berriak behar ziren. Esan beharra dago, oso zaila zela andereño tituludunak eta euskaldun alfabetatuak bilatzea eta horretaz Julia Berrojalbiz arduratzen zen. Horrela, irakasle berrien prestakuntza hobetzeko, bi bide antolatu zituzten. Alde batetik M^a Angeles Garai eta Julia Berrojalbizekin denboraldiak igarotzen zituzten, beraien esperientziatik ikasteko eta bestetik, Xabier Peñaren eskuz, euskaraz alfabetatzeko klaseak jasotzen zituzten.

Bilbon egoera hau zegoen bitartean, Bizkaiko herrietan ikastola txikiak zabaltzen hasi ziren. Bilboko eskola izan zuten erreferentetzat eta honen babesa jaso zuten une oro. Hala ere, eskola bakoitzak bere nortasuna garatu zuen, herri bakoitzeko egoera sozio-ekonomikoak eta baldintzetara egokituz. Hauek izan ziren lehenengo Bizkaiko herrietako eskolak: Getxoko San Nikolas eskola (1963), Deustuko ikastola (1963), Asti-leku ikastola Portugaleten (1964), Lekeitioko R.M.Azkue ikastola (1964) edo Laudioko ikastola (1961) besteak beste.

2.4. BILBOKO LEHEN ESKOLAREN LEGALIZAZIOA

España osoan hezkuntza berrantolatu nahian, 1965.urteko abenduaren 21ean Espainiako gobernuak ikasle guztiek eskola agiri liburua izan behar zutela agindu zuen, ikasleek liburu honen beharra zuten, goi mailako ikasketak egin ahal izateko.

Momentura arte, klandestinitatean egiten zuten lan eskolek, baina Julia Berrojalbizek, eskolen koordinaketan lan egiten jarraitzen zuenak, erabaki zuen lege honekin batera, aurrera pausu bat emateko garaia zela. Batez ere, ikastoletako ikasleek goi mailako ikasketak burutzeko aukera izan zezaten, gainontzeko ikasleek bezalaxe. Horregatik eskolaren legalizazioa emateko ordua zela pentsatu zuen.

Lehenengo eta behin Euskaltzaindiara jo zuen Juliak, ikastolaren proiektuan hezkuntza elebiduna ezartzeko eta ikastolaren legalizazio prozesuan laguntzeko. Euskaltzaindian, erantzun ona jaso zuen eta erakundearen ordezkari moduan Alfonso Irigoien euskalzaleak eskola berriaren proiektuan parte hartu zuen. Irigoien eta Berrojalbiz, Pablo Sanchez inspektorearekin batzartu ziren orduan, euskaraz irakasten zuen eskola bat zabaltzeko jarraitu behar ziren eginbeharrei buruz galdetzeko. Honek hainbat agiri aipatu zituen, parrokoaren agiria edo udal-baimena besteak beste. Horretaz gain, Bizkaiko Ahaldu nagusiaren laguntasuna oso mesedekoa izango zela aipatu zien inspektoreak. Pablo Sanchezen gomendioarekin, Bizkaiko Diputaziora jo eta bertan, eskola elebidunaren aldeko txostena jaso zuten. Alfonso Irigoienek Bizkaiko Ikastolak liburuan aurki dezakegu txosten horren paragrafo bat:

<< Ahaldu Nagusi Txit Goienak hilabete honetako 23an ondorengo agindua izenpetu du:

“Niri dagokidanez, eta Turismo, kirol eta Heziketa Buruak erakutsitakoa onetsiz, Euskaltzaindiak aurkeztutako idazkia, lau urtetik zortzi bitarteko umeentzat ikastetxe elebiduna sortzeko dela eta, sortze horren helburuak kontuan izanik, eta Euskaltzaindiaren ardurapean jardungo duela eta Lehenengo ikas ikaskizuneko ikastetxe bat denez, hortako zuzendaritzak hortarako eman dituen arauak beteko dituela. Euskaltzaindiari jakin arazi nahi diot Aldundiak atseginez ikusten duela Lehenengo ikaskizuneko ikastetxea, euskera eta hizkuntza ofiziala batera irakatsiko dena, zabaltzea”

Zugana jasoten dut otsailaren 16ko eskutitzari erantzunez.

Bilbon, 1966ko maiatzaren 25a

Idazkariak>>

Eskola bat legalizatzeko bete behar ziren baldintza guztiak beteta eta Aldundiaren eskolaren aldeko txostenarekin, Lehen Ikaskizuneko Idazkari

Orokorriari, Bilboko Elkano 6 kalean “Resurrección Maria de Azkue” izeneko eskola irekitzeko baimena lortzeko eskaria egin zioten. Bertan eskolaren zehaztasunak agertzen ziren eta ez zen ezkututzen hizkuntza ofizialaz gain, euskaraz ikasiko zela.



5. El Cano 6 kalea, R.M.Azkue. ikastola
(Bizkaiko Ikastolak)

1966.urteko ekainaren 8an Resurrección Maria de Azkue ikastola inauguratu zen. Egun horretan ikastolara, hiriko jendeaz gain, hainbat pertsona ospetsu hurbildu ziren . Eliz Barrutiko Gotzaina, gobernadore zibila edo inspektore burua, besteak beste. Hauek ikastolari buruzko iritsi ona eraman zuten, batez ere, Espainiako Bandera bertan zintzilikatuta ikusi

zutenean.

Ikastola martxan egon arren, oraindik baimen ofizialik ez zuten lortu. Madrilen oraindik zenbait zalantza baitzizutzen Bilboko ikastolaren inguruan. Hau ikusita, Juliana Berrojalbiz, Alfonso Irigoien eta Tere Rotaetxe Madrilerara abiatu ziren 1968ko apirilean ikastolarekin egon zintezkeen arazoak konpontzeko. Hilabete beranduago Boletín Oficialen² argitaratu zen:

“Esta Dirección General, de conformidad con lo preceptuado en los artículos 25 y 27 de la vigente Ley de Educación Primaria de 17 de julio de 1945 (<<Boletín Oficial del Estado>> del 18), Y en cumplimiento de lo dispuesto en la Orden ministerial de 15 de noviembre del mismo año <<.Boletín Oficial del Estado>> del 13 de diciembre), ha resuelto autorizar el funcionamiento legal con carácter provisional durante el plazo de un año. supeditado a las disposiciones vigentes en la materia y a las que en lo sucesivo pudieran dictarse por este Ministerio, en 111.5 condiciones y con la organización pedagógica que por Orden de esta misma fecha se determinan, de los Colegios de Enseñanza Primaria no estatal que a continuación se citan:

Bilbao:

«Colegio Resurrección Maria de Azkue», establecido en la calle de Elcano, número 6, por don Alfonso Irigoyen Echevarria.

² Legalizazio ofizialaren testua : B.O.E. 7-V-1968 110.zbk

2.5. “RESURRECCIÓN MARIA DE AZKUE” IKASTOLA

Horrenbestez, orain bai legearen babesarekin, Elkano 6an lehenengo pisuko ezkerrean, Bilboko lehen ikastola legeztatua martxan jarri zuten. Lokala Tere Rotaetxerena zen eta beraz alokamendu gastuak oso eskasak ziren.

Zentroa lau ikasgeletan antolatu zen lehenengo ikasturtean: Eskolarurreko bi gela zeuden, 1.mailatik 6.mailara nesken ikasgela bat eta 1.mailatik 4.mailara mutilekin lan egiten zuen beste bat. Lehenengo urtean 150 bat ikasle ikasi zuten zentroan. Ikasle kopuruak gora egin zuen ikasturtetik-ikasturtera. 1971-1972. Ikasturtean 530 ikasle matrikulatuta zeuden.

Irakasleei dagokienez, lau irakaslek aldatu zuten klaseak emateko tokia etxe eskoletatik ikastolara. Julia Egia, M^a Angeles Garai, Charo Ansorregi eta Begoña Foruria. Eskolaren zuzendaritzapean Julia Berrojalbiz zegoen. Ikastolako irakasle guztiak tituludunak ziren eta ikasle kopuruak gora egin zuen heinean, irakasleagoak ere gora egin zuen. Aurreko urteetan bezalaxe, ikastolako lehenengo urteetan irakaslegoa emakumeek soilik osatuko zuten. Hala ere, neskak eta mutilak geletan batzen hasi ziren heinean, gizonezkoen beharrezana ikusi zen eta gizonezkoak ikastolan sartu ziren. Baina, lehenengo maisuak abadeak izan ziren, hauek tituludunak eta euskaldunak zirelako eta garai horretan, oso zaila zen gizonezkoetan bi ezaugarri hauek aurkitzea.

Azkue ikastolak egiten zituen ekintzak ez ziren soilik ikasgela barrura mugatzen. Hainbat ekintza gehigarri burutzen zituzten urte guztian zehar. Batez ere antzezlanak eta udako koloniak ziren arrakastatsuenak eta gurasoek gustukoak zituztenak. Urtero egiten zituzten antzezlan desberdinak Gabonetan eta hauek testu laburrekin eta askotan euskarazko abesti herrikoiekin osatzen zituzten. Santa Ageda bezperan, Bilboko kaleetatik zehar ateratzen ziren ohitura zen bezala abestera. Ekintza hauek zentroko irakasle eta gurasoen artean antolatzen ziren eta arrakasta handikoak izaten ziren. Eskolako lehen urteetan egiten zen bezala, Elkanon ere udako koloniak antolatzen zituzten. Urte hauetan Bermeoko Mañu auzora joaten ziren.

Gero eta handiagoa zen ikastola hau koordinatzeko zentroko norbanako /partaide guztien parte hartzea oso garrantzitsua zen, horregatik gurasoek eskola bizitzan parte hartuko zutenaren konpromisoa hartzen zuten seme-alabak

matrikulatzean. Hala ere, bazegoen Andere Elkartea. Andere elkarteak 20 bat ama eta irakasleak osatzen zuten eta ikastolaren administrazio ardurak zuzenagoa hartu zuten. Gehienak Bilbokoak ziren eta guztiek ez zekiten euskaraz. Andere Elkartearen buruan Julia Berrojalbiz eta Tere Rotaetxe zeuden eta idazki modura Mertxe Segarna zegoen. Elkarte honen ardurak nagusiak hurrengoak ziren: Tituludun maisuak aurkitzea, diru-laguntzak topatzea, Lehen jaunartzeak antolatzea, ikasleen matrikulazioa egitea edo egingo ziren ekintzak antolatzea, etab.

2.6. LAURO IKASTOLA

Legearen berrikuntzak: “Ley general de educación”

Bizkaian ikastolen sorrera bizi zen bitartean, Espainiako hezkuntzan hainbat arazo zeuden, adibidez, herritarren %65 analfabetatze tasa. Honi aurre egiteko Heziketa Ministeritzak, 1970eko abuztuaren 4ean “Ley General de Educación”³ delakoa onartu zuten Espainiako Gorteetan. Lege honek era bat berriztuko zuen Espainiako hezkuntza, garai horretako gizartera egokitu nahian. Lege honek ekarri zituen aldaketan artean, hurrengoak aurki ditzakegu:


- Herritar guztientzat derrigorrezko eta doako hezkuntza.
- Herritar guztien berdintasuna hezkuntzan.
- Oinarrizko Hezkuntza Orokorra:
 - Eskolaurrearen jarraipena
 - 14 urtera arte luzatu
 - 8 maila izango ditu.
- Irakaskuntza edukien berrikuntza
- Irakaslearen prestakuntzaren hobekuntza

Lege berriaren ezarpenak eragina izan zuen eskola guztietan, bere antolamendua aldatu behar izan zutelako. Baina eragin hori nabarmenagoa izan zen euskal ikastolentzat, bidea hasiberria baitzuten eta oraindik ez zutelako urteetan lanean ari ziren eskolen indarra. Hala ere, ez zen oztopo bat izan, lege

• ³«BOE» núm. 187, de 6 de agosto de 1970, páginas 12525 a 12546 (22 págs.)

honek ez zuelako ikastolen matrikulazioa txikitu, are gehiago, gero eta ume gehiago zeuden eskoletan. Honen adierazle dugu hurrengo grafikoa :

Ikastoletako Ikasle kopurua



Datuak: Bizkaiko Ikastolak: Gregorio Arrien

Grafikoan ikusi dezakegu nola ikasleen gorakadarik handiena lurralde historiko guztietan 1970-1971. urteetan eman zela, beraz hezkuntza ministeritzak ezarritako legeak ez zuen ekarri inongo arazorik ikasleen matrikulazioetan. Argi ikusten da ere, nola Bizkaian eta batez ere Gipuzkoan beste lurraldeetan baina ikastolako ikasle gehiago dauden, ikastola hauek aurretiaz hasi zutelako ibilbidea.

Lauro Ikastola

R.M.Azkue ikastolan ere matrikulazioak gora egin zuten, baina ez zituzten



6. Ikastola eraikitzen
(Lauro Ikastola)

legeak eskatzen zituen baldintzak betetzen, instalazioari dagokionez. Gelak ere txikiak ziren eta ez ziren nahiko matrikulazio berriei aurre egiteko, ikastola berri beharra zegoen. Orduan, gurasoek Bilbotik kanpo bilatu zuten ikastola berriaren kokalekua, Loiun konkretuki, lurraren prezio baxuagatik, naturarekin lotura

izateagatik eta lurraren tamaina handiagatik.

Horretarako, 1970.urtean “Cooperativa de Enseñanza Lauro” jarri zuten martxan gurasoek, ikastolaren etorkizuna antolatzeko. Bertan erabaki zen ikastola berria eraikitzeko lekua: Loiun konkretuki, lurraren prezio baxuagatik, naturarekin lotura izateagatik eta lurraren tamaina handiagatik. Baita diruaren antolamendua eta ikastolaren egitura ere. Etorkizunean gurasoek osatutako kooperatiba ikastolaren egituraz eta funtzionamenduaz arduratuko zen, beraz, esan dezakegu, kooperatiba berri honek, Andere Elkartea ordezkatu zuela.

Kooperatibako bazkide bakoitzak jarritako diruarekin, eskatutako kreditu batekin eta estatuak emandako diruarekin, 1972.urtean zabaldu zen Lauro Ikastola. Ikastolaren berrikuntzarekin matrikulak gora egiten jarraitu zuten, ikastola ireki eta bi urtera Lauro Ikastola kooperatiban 500 bazkide zeuden.

Elebitasuna

Elebitasunaren bidean, 1975.urteko Konstituzioarekin eta 1989.urteko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuarekin, euskara bihurtu zen gaztelaniarekin batera erkidegoaren hizkuntza ofiziala.

Horri esker, Lauro Ikastolan 1979.urtean derrigorrezko ikasketak amaitu zituzten ikasleek, euskaraz burutu zituzten irakasgai guztiak. Ikasle hauek Unibertsitate aurreko ikasketa guztiak euskaraz burutu dituzten Bizkaiko lehen hamabost ikasleak izan ziren.

Elebitasunean pauso bat gehiago emanez, 1982ko azaroan, Carlos Garaikoetxea lehendakaria zela, Eusko Legebiltzarrak Euskararen Normalizaziorako Legea⁴ onartu zuen:

15. artikulua

Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaita guztietan. Horretarako, Legebiltzarrak eta Jaurlearitzak neurri aproposak hartuko dituzte Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irakaskuntzan elebitasuna gero eta orokorragoa izan dadin.

⁴ 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa

Gaur egungo Lauro Ikastola

Lauro Ikastolaren hazkuntzak gora egiten jarraitu zuen. 2002. Urtean Zilarrezko "Q" errekonozimendua lortu zuen EFQM ereduaren arabera. Gaur egun ikastolak 1830 ikasle ditu, 118 irakasle eta irakasleak ez diren 24 langile. Kurtso bakoitzean 5 gela daude eta ikastola 4 eraikin handietan banatzen da. 2012/2014 ikasturtean ikastola Bilbotik Loiura aldatu zeneko 40.urteurrena ospatu dute, lehenengo bazkideen omenez.



7. Gaur egun Lauro Ikastolak duen itxura
(Lauro Ikastola)

3. Metodologia

Bizkaiko gerraosteko lehen ikastolari buruzko ikerketa gauzatzeko, liburuak eta dokumentuak erabili ditut, horretaz gain, atal praktikoa ahozko historiarekin burutu dut.

Batez ere, Gregorio Arrienen *Bizkaiko ikastolak 1957-1972* liburuan oinarritu naiz lanaren atal teorikoa osatzeko eta beste liburu eta dokumentu desberdinekin osatu dut.

Alde partikokan, M^a Angeles Garairen testigantzez gidatu naiz eskolaren lehenengo urteak eta garapena ezagutzeko eta M^a Paz Basagoitiren eskutik, ikaslearen ikuspuntua ezagutu dut. Horretaz gain, orain dela 40 urteko ikastola eta gaurkoa konparatu ditut bi emakumeen eskutik.

Elkarrizketak gauzatzeko egin ditudan galderak, mota desberdinekoak izan dira. Eskolaren alderdi konkrituagoak ezagutzeko, galdera itxiak erabili dira. Iritzia edo eskolen arteko desberdintasun bat egiteko, irekiagoak.

Esan beharra dago, Gregorio Arrienen liburuaren ideia asko, ahozko kontaketa bidez osatu direla eta kontaketa horien protagonista nagusienetarikoa bat M^a Angeles Garai izan dela, beraz, berak kontatutako hainbat pasarte liburuan eta nire alde teorikoa ageri izan dira. Horretaz gain, M^a Angelesekin erakutsitako argazkiak liburukoak izan dira, berak Arrieneri eman baitzizkion, beraz, lanean ageri diren argazkiak liburuan ageri direnak dira.

4. Lanaren garapena

Alde teorikoan ikastolaren historia aztertuta dago, legeak ekarri zituen aldaketak eta zer nolako bidea jarraitu zuen ikastolak. Baina lehen ikastola hori hobeto aztertu nahian, eguneroko bizitza nolakoa zen jakin nahi dugu. Horretarako M^a Angeles Garaik bere esperientziara gerturatu digu. Gaur egun 84 urte ditu, erretiratuta dago eta Bilbon jarraitzen du bizitzen. Harro esaten du euskaraz maiteminduta dagoela eta hori erakutsi digu berarekin hizketan geundela.

M^a Angelesek, andereñoaren esperientzia kontatu badigu, M^a Paz Basagoitik R.M.Azkue ikastolan ikasle moduan izandako esperientzia azaldu digu. M^a Paz, Bilboko El Cano eta Gran Viako pisuetan ikasi zuen eta geroago zabalduko zen Lauro Ikastolan. Gaur egun, zentro honetako pedagogo da, hainbat urtetan irakasle modura egon ostean.

Baina hasieratik hasiko gara, ikastolaren bizitza ezagutzen:

4.1. MARIA ANGELES GARAI



7. M^a Angeles Garai (Bidegileak)

M^a Angeles Garai eta Xabier Peña, azken honek ematen zituen euskara alfabetatze klaseetan ezagutu ziren. M^a Angelesek, soberan zekien euskaraz hitz egiten, gurasoak euskaldunak zirelako, baina eskolak gaztelaniaz jaso zituenez, euskaraz idazterako orduan arazoak zituen. Idazteaz gain, aditzak eta deklinabideak ondo erabiltzen ere ikasi zuten eta euskal idazleak irakurri zituzten. Hainbeste urtetan gaztelaniaz egin zutena, oraingoan euskaraz egin zuten.

Euskarazko klaseetan zeudela, Xabierrek M^a Angelesi ikastola berria zabaltzeko ideia erakutsi zion, eta biak batera lekurik aproposena bilatu zuten.

“Gurasoen bitartez, leku eder-eder bat aurkitu genuen San Nikolas parrokiako goialdean zeuden areto batzuetan” gogoratzen du Garaik. “ Niri beldurra ematen zidan klaseak ematea eta nire bururatu esaten nion: Zelan hasiko naiz ni klaseak ematen? ”

Formakuntza hobetu nahian, Elvira Zipitriaren etxera habiatu zen andereño bilbotarra. Bilbon zeuden lokalekin konparatuta, Donostiako Alde Zaharreko pisua txikia eta iluna gogoratzen du M^a Angelesek, hala ere, beste alderdi batekin geratu zen.

“Andereñoak berak zeukan gozotasuna eta erakargarritasuna umeekin...ni txundituta geratu nintzen”

Garrantzitsua ez zen ikasteko lekua, baizik eta maistrak berak ematen zion giroa.

Bilbora itzuli zen orduan, bizitako esperientziaren aberasgarritasunarekin eta Donostiako Karmele Esnal andereñoak oparitutako abestiz eta olerkiz beteriko blog batekin.

Ikastolaren esperientzia berria hasi zenean, batez ere Bilboko umeak zeuden bertan, hala ere, bazeuden Getxokoak ere. Umeak batzeko autobus arrosa bat zegoen, Bilboko auzoetako umeak batzen zituena. Lehenengoetan ume guztiak ziren euskaldunak, baina denborarekin erdaldunak ere ikastolara joaten hasi ziren.

Ikastolan ez zeukaten ikasteko materialik. Zotzak eta kanikak ziren matematika ikasteko baliabideak eta Zipitriaren abestiak abesten zituzten.

“Elvirak berak asmatutako abestiak ere abesten genituen, bere metodologia Maria Montesoriren metodologian oinarrituta zegoen, baina berak euskarara moldatu eta bere abestiekin aberastu zituen eta bazegoen abesti bat kanikekin esan dudanarekin lotuta: Ume batek buztinezko hiru kanika bazituen, hau da, hiru bateko eta besteak bost . Beste batek hamarrekoa zuen eta berarekin trukatzeko, zenbat falta ziren? Hori giteko abesti hau abesten genuen:

“Dendan gure Mikeltxu
kanikak trukutzen da
hamarreko polit bat
honen truk eman dezan”

Ikastolak eduki zuen liburu bakarra Xabiartxo liburua izan zen. Mahaiarik ere ez zituzten, jarduera guztiak lurrean egiten ziren eta idazteko soilik altxatzen ziren.



8. Xabiartxo
liburua
(kartelartean)

Lehenengo ikasturtearen oso oroitzapen onak ditu M^a Angelesek.

Nola kurtso bukaeran parrokiako antzerki aretoan ikasturte guztian zehar ikasitakoa, bertan antzeztu zuten. Hain pozik bukatu arren, badakigu, hurrengo ikasturtea Iralabarrin eman behar izan zela. M^a Angelesek, ez zuen bigarren esperientzia hau bizi, ezkondu eta seme-alaba bi izan zituelako.

Etxe eskolen garaia Bilbora heldu zenean, martxan egon zen berriro ere Garai. Juli Berrojalbiz eta Tere Rotaetxeren lana goraiatzeko du M^a Angelesek garai honetan, lan handia egin baitzuten ume guztiak eta etxe eskolak antolatzen.

Garaik bere etxean hartu zituen 18 ume, berak zituen bi seme-alabekin batera.

Etxe eskola horiek, zerikusi handia zuten Elvira Zipitriaren etxe eskolekin:


“Orduan bai, Elvira Zipitriaren antzera ematen genituen klaseak, lurrean eserita. Baina, ezin zara imajinatu zer nolako gozotasuna ematen duen horrek, hain ondo egoten ginen...Nik gogoratzen dut hori oso polita izan zela eta horrela ibili ginen 4-5 urtetan”

Etxe eskolen garaian, ez zen salaketarik egon. Mehatxuak bazeuden eta M^a Angelesek aitortzen du, atezainari hilero dirua ematen ziola, bere isiltasunaren truk.

Eskolaren finantziarioz Tere Rotaetxe arduratzen zen San Nikolasen, baina etxe eskoletan, irakasleari ordaintzen zioten zuzenean. Garaik 300 pezeta kobratzen zituen hilero ikasle bakoitzeko. Hala ere, bazeuden egoera ekonomiko kaskarra bizi zuten ikasleak eta horiek soilik erdia ordaintzen zuten.

Elkanora pasatu zirenean, bete beharreko baldintzak bete eta gero, klaseak aulki eta mahaietan ematen hasi ziren, hala ere, Garairi gehiago gustatzen zitzaion etxe eskoletako lan egiteko era, non ikasleak etxeko zapatiletan ikasten zuten. Baina Elkanon, lasaitasun handia zegoen, permiso guztiak edukita, inspektorearekiko beldurrak bukatu zirelako, nahiz eta bandera Española jarri behar zuten:

“Ikastolan egon ginenean, nire gelan ez zegoen tokirik bandera española jartzeko, eta Txaro Ansorregik jarri behar zuen goizetan eta arratsaldeetan kendu, esaten zuen ondo etortzen zitzaiola zapatak garbitzeko.”

4.2. MARIA PAZ BASAGOITI

9. M^a Paz Ikastolan
(M^a Pazek emana)

M^a Paz Basagoitik lehenengo urtea ELkano kalean ikasi zuen, bigarrena, Gran Viako pisuan eta 1973. urtetik aurrera Lauro Ikastolan, 8.maila bukatu zuen arte. Ama eta aita ez ziren

euskaldunak, baina seme-alaba euskaldunak izan nahi zituztenez

eta ikastolaren aldeko apustua egin zuten.

M^aPazek nahiko oroitzapen ilunak ditu Bilboko pisuen inguruan:

“Gogorapen nahiko iluna daukat, El Canokoa oso pisu handia zen, antzinekoak modukoa. Logeletan egoten ginen, txikiak ezin ginen patiora atera eta pasabideetan egoten ginen edo gelaren batean jolasean. Gela horiek, gela ederrak ziren. Gran Viakoa ere oso handia zen. Nire gelak kale nagusira ematen zuen, hori bai gogoratzen dudala. Nagusiak Plaza Eliptikara joaten ziren jolastera, baina gu ez ginen ateratzen.”

Mari Pazek gogoratzen dituen irakasle guztiak emakumezkoak dira: “Andereño Pilar bere eraztunarekin” dio, Andereño Trini, M^a Angeles Garai bera ere gogoratzen du. Julia Berrojalbiz eta Tere Rotaetxe lanean gogoratzen ditu. Terek jaunartzeko jantziak egiten zituela esaten du eta Julia hortik ibiltzen zela beti. Lauron, oster, bai gogoratzen ditu zenbait maisuren izenak: Angel Zelaieta, Patxi Ateka edo urte batzuk arte zentroko zuzendaria izan den Jaime Martinez.

Materialari dagokionez, Kili-kili lan eta lan gogoratzen duen liburu bakarretarikoa da. Idazten ikasi zutenean, irakasleak eskuekin egiten zizkien keinuak letrak nola idazten ziren gogoratzeko. Matematika lantzeko koloreetako erregletak erabiltzen zituzten. Lauron zeudela, gaztelaniazko liburuak erabiltzen zituzten, baina irakasleek euskaraz ematen zituzten klaseak “Egia esan, kriston nahasketa genuen bi hizkuntzen artean” aitortzen du andereñoak. Gainera irakasle batzuk bizkaitarrak zirenez, bizkaieraz ibiltzen ziren, beste batzuk ordea, gipuzkoarrak eta hauek gipuzkoarrez hitz egiten zuten, beraz, nahasketa hori areagotu egiten zen euskalki desberdinak erabiltzean.

M^a Pazek ikastola garaia bere bizitzako urterik onenetarikoak moduan gogoratzen du. Lauroren ibilbidea hasi zenean, oso ume gutxi zeuden, gaur

egunarekin konparatuta, eta azpimarratzen du, askatasun handia zeukatela han, horrela definitzen du berak: "Nahiko malgua zen ikastola, baina ederto pasatzen genuen, bikain! Esan dezakegu zela " una selva feliz", Sumerhil antzeko bat. "

Hala ere, esaten du garai horrek ez zuela eduki eragin handirik magisteritza lanbidea aukeratzeko orduan, kasualitatez heldu zelako.

4.3 BI GARAIK KONPARATZEN

Ibilbidea 1956.urtean hasi zen San Nikolasen eta gaur egun proiektuak darrai Loiuko Lauro auzoan. Baina, nola aldatu da eskola? Zer lortu da urte hauetan zehar? Gizartea aldatu egin da eta eskolak aldaketa horiei aurre egin behar izan die, baina hainbat aspektu aldatu dira.

M^o Angeles Garaik hizkuntzari ematen dio garrantzia:

"Gaur egunera arte sortu diren eskola guztiak, lan handia egin dute, 25urtetik beherako gazteak denak dakitelako euskaraz eta nik hori sarritan probatzen dut. Esate baterako, etxerantz noanean San Mamesetik ateratzen dira eta beti galdetzen diet gazteei ia Athleticekek zer egin duen. Denak erantzuten didate, irabazi edo galdu, denak dakite euskaraz, horretan asko aurreratu da."

Hala ere, aitortzen du arduratuta dagoela, euskaraz jakin bai, baina gutxi egiten dutelako. Hasi berriak ziren ikastola horretan, euskaraz bizi ziren. Euskara egitea ez zen soilik ikastolara mugatzen, umeez etxeetan euskaraz egiten jarraitzen zutelako. Baina gaur egun errealitatea desberdina da M^a Angelesen ustetan, umeez uste dute euskara klase barruko hizkuntza dela soilik eta hori, gaur egun lehen baino askoz ere baliabide gehiago daudela euskaraz bizitzeko, telebista edo liburuak adibidez euskaraz daudelako eta lehen hori pentsaezina zen.

Baina aitortzen du aurrerapauso handiak egin direla gainontzeko alor guztietan. Lauro Ikastola ezagututa, zoragarria dela esaten du, behar den guztia daukatelako, euskara bakarrik faltan.

M^a Pazek orokorrago aztertzen ditu aldaketa, irakasleen prestakuntza gaur egun askoz hobea dela dio, dudan jartzen du denak tituludunak zirela. Hauen euskara maila ere asko hobetu da bere ustetan, bera garaian, batzuk euskara oso ondo menperatzen zuten bitartean, heziketa fisikoko irakaslea gogoratzen du, klaseak gaztelaniaz ematen zituelako, euskara asko kostatzen zitzaielako. Ikastolaren antolamenduaz dio, asko aldatu dela, orain dena antolatuago dagoelako:

“Orain dena dago oso antolatuta, material guztia euskaraz dago, curriculumak esaten dizu ze eduki landu behar diren...Askoz ere bitarteko gehiago daude, askoz ere hobeagoak . Alde horretatik asko hobetu da ikastola. Nire garaian, nire sentsazioa zen, bakoitzak al zuena egiten zuela eta ziur nago dena oso ondo edukiko zutela pentsatuta. Batez ere, beste ikasle guztien prestakuntza berdina eduki behar genuelako, titulazioak lortzeko. Baina, beste lasaitasun bat zegoen, egia da ere, askoz ere eduki gutxiago lantzen genituela. Gaur egun, ostera, eduki piloa landu behar dira, dena dago guztiz antolatuta. Alde horretatik ez da hobetu bada, baina bai egokitu egin dela gaur egun dauden eskakizunetara.”

Hala ere, faltan botatzen du lan egiteko lasaitasun hori. Gaur egun, lehen baino eskakizun eta landu beharreko eduki gehiago daude eta beraz, prisa handiarekin egiten da lan. Lehen umeak zoriontsuagoak zirela uste du, orain lanez gainezka daudelako; eskolatik atera eta eskolaz kanpoko ekintzak dituzte, ondoren musika eta ondoren etxerako lanak egin behar dira....lan asko da.

Hizkuntzaren alorrean, M^a Pazek ere uste du galdu egin dela. Lehen gurasoek, bere kasuan bezala, umeak ikastoletara bidaltzen zituzten seme-alaba euskaldunak izan nahi zituztelako, beraien ondorengoek euskaraz bizitzeko. Baina gaur egun, ikastolara bidaltzearen helburua ez da hori. Umeak ikastolara bidaltzen dituzte etorkizunean lana topatzeko leku askotan beharrezkoa delako euskara jakitea eta horrela, nagusitan ikasi beharrean, txikitatik dakitelako. Baina ez dira arduratzen euskaraz bizitzen, baizik eta jakiten.

4.4. EMAKUMEAK ETA HEZKUNTZA

M^a Angelesen istorioa irakurrita, ikusi dezakegu emakumeen izenak direla agertzen direnak, salbuespen batekin: Xabier Peña. Beraren hitzetan emakumeak ziren langileenak, bai ama bezala, zein andereño bezala, zein laguntzaile bezala. Emakumeak ziren laguntzeko prest zeudenak beti. Gizonak kooperatiba sortu zenean agertu zirela esaten du “ Orduan bat-batean, dirua eta bazkideak behar zirenean , amak beharrean, gurasoak sortu ziren”

M^a Pazek ostera, irakasle modura ez du desberdintasun hori bizi, nahiz eta gaur egun Lauron maistra gehiago dauden maisuak baino, ez du inongo desberdintasunik aurkitzen bi generoen inguruan. Berak pertsonari ematen dio garrantzia eta irakaslea zelakoa den kontuan hartzen du, generoak desberdindu gabe.

5. Ondorioak

Lehenengo eskolaren proiektu hori bizi izan zuten bi pertsonen esperientzia entzutea oso aberasgarria izan dela esan beharra daukat. Liburuetan irakurri dezakegu historia, dokumentuak aztertu ditzakegu, baina ezin daiteke konparatu lehenengo pertsonan bizi izan duen pertsonen kontaketaekin. M^a Angelesek hizketan, aurpegian ikusten zitzaion ilusioa eta jende gazteari bere esperientzia kontatzeko nahia.

M^a Pazen begietan ere ikusten ziren urte zoriontsu horien islada, oroitzapen onak. Etorkizunean guk berdina esango dugu? Ba ez nago ziur. Gaur egun ez dagoelako urte horietako ilusioa, gutxienez ondo ezagutzen dudan Lauro Ikastolan. Gurasoak ez dira eskolaren parte, irakasleek, zentroko langileek eta ikasleek soilik osatzen dute ikastola. Agian, oso handia delako, ia 2000 ikasle ditu eta hainbat jenderekin, lehenengo urtetan zegoen giro familiar hori ia ezinezkoa bihurtzen da. Egia da ere, M^a Pazek dioen bezala, gizartea asko aldatu dela eta ikastolak aldaketa horiei aurre egin behar izan diola, baina ikastola bat ikasteko lekuaz gain, disfrutatzekeo lekua ere badela ezin dezakegu galdu.

Aipatzekoa da ere garai horretan emakumeek egin zuten lana. Ikastolak aurrera atera baitzituzten, bere seme-alaben hezkuntza, euskalduna eta kalitatezkoa izan zedin.

Idoia Fernandezek, *Emakumea, Hezkuntza eta Nazioa Euskal Herrian* liburuan dio, emakume euskaldunak lau aldiz zapalduak izan direla, emakumeak direlako, nazio zapaldu baten partaide direlako, hezkuntza gutxiagotua erabiltzen dutelako eta gizarte kapitalista baten bizi direlako. Baina oztopoen gainetik, gerraostean euskal kultura birsortzearen arrazoi handia izan ziren eta euskaraz ikasteko aukera sortu zuten. Baina ez dut uste gaur egun errekonozimendu hori egin denik. 2006.urtean, Gernikako Arbolaren haritz bat landatu genuen, ni ikasle nintzela, San Nikolasen sortu zen ikastolaren omenez. Aurten, Lauro ikastolaren 40.urteurrena ospatu da eta lehenengo bazkidei omenaldia egin zitzaien. Ea noiz egiten den San Nikolas elizan lehenengo eskola sortu zuten emakumeei omenaldia edo etxe eskoletako maistrei, beraiek gabe ez baitziren inongo 40 urteak ospatuko.

Euskararen egoera ere, ez da munduko onena. Lana egin baino lehenago banekien ikasleentzat, euskara hizkuntza akademikoa baino ez zela. Horrela ageri da ere Eusko Jaurlaritzak egin duen azken Mapa Soziolinguistikoa. Gero eta herritar gehiago daude euskaraz alfabetizatuta, baina euskararen erabilpen datuak, ez dira hain onak.

M^a Angelesekin hitz egiten, benetan konturatu nintzen beraiek egindako lana deuseztatzen ari ginela. Bai, gazteek eta umeek euskara badakite, puntu hori mantendu eta hobetu dugu, baina erabili? Euskaraz bizi? Esaldi famatu horrek dioen bezala: “ Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak egiten ez duelako, dakienak erabiltzen ez duelako baizik”. Gu, euskaldunak, ez bagara euskaraz bizi, nor biziko da? M^a Angelesek galdetu zidan ea banekien zer egin daitekeen horren aurrean? Mesedez eskatu zidan ni euskaraz bizitzeko eta nik daukadan sentimendu hori nire ikasleak izango direnei transmititzeko. Momentu horretara arte ez nuen inoiz horretan pentsatu, gu gara, etorkizuneko irakasleak, betebeharrak hori dugunak. Beraien indar eta ilusioari esker, gaur egun lan egin dezakegu eta beraz, tinko jarraitu behar dugu beraiek hasi zuten bidea egiten.

6. Erreferentzia Bibliografikoak

Web orrialdeak:

- Xtec <http://www.xtec.cat/~jcampman/invTeide.pdf> tik hartua 2013ko abenduak 28an.
- WIKIPEDIA
 - o http://eu.wikipedia.org/wiki/Emakume_Abertzale_Batza tik hartua 2014ko urtarrilak 8an.
 - o [http://es.wikipedia.org/wiki/Ley_General_de_Educaci3n_\(Espa1a\)](http://es.wikipedia.org/wiki/Ley_General_de_Educaci3n_(Espa1a)) tik hartua 2014ko maiatzak 19an
- EUSKARA.
 - o <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/emabatza.pdf> tik hartua 2014ko urtarrilak 8an.
 - o <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/29%20garai.pdf> Tik hartua 2014ko urtarrilak 20an.
- EUSKO JAURLARITZA
http://www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/e_estatuto.pdf tik hartua 2014 maiatzak 19
- BOE
 - o https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-1965-21380 tik hartua 2014ko apirilaren 24an
 - o <http://www.boe.es/boe/dias/1968/05/07/pdfs/A06682-06683.pdf> tik hartua 2014ko maiatzaren 3an
- BIDE GILEAK
 - o http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/113_garai.pdf tik hartua 2014ko apirilaren 4ean
- LAURO IKASTOLA
 - o http://www.lauro.org/index.php?option=com_content&task=view&id=31&Itemid=293 tik hartua maiatzaren 16an

Liburuak:

- (2010) *Mujeres y educaci3n durante el franquismo en Im3genes*. La secci3n femenina y el auxilio social (1934-1977). Creaciones Gabrielle Vincent. Madril.
- S.ACKER (1995) *Genero y Educaci3n*. Reflexiones sociol3gicas sobre mujeres, ense1anza y feminismo. Narcea. Madril.
- M.Garcia, A.Calvo, T.Susinos. (2008) *Las mujeres cambian la educaci3n*. Investigar la excuela relatar la experiencia. Narcea. Madrid
- EMAKUNDE (1993) *Emakumeak eta hezkuntza Euskal Autonomi Erkidegoan*. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz
- I. Fernandez. *Oroimenaren hitza*. Ikastolen historia 1960-1975. Udako Euskal Unibertsitatea. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo.
- VALLE T.d. (1985) *Mujer Vasca, imagen y realidad*. Anthropos. Bartzelona.
- ARRIEN.G (1993) *Bizkaiko Ikastolak 1957-1972*. Eusko ikaskuntza. Cuadernos de secci3n: Educaci3n.
- UGALDE M. (1992) *Identidad femenina y nacionalismo vasco*. ISSEIren III konferentzia. Dinamarca.
- EUSKALTZAINDIA (2010) *Ikastola mugimendua dabilen herria*. Ikastola eredia 1960-2010. Jagon Saila Ikastolen Elkartea. Bilbo

7. Eranskinak

M^a Angeles Garairen elkarrizketa

1. Zelan hasi zen ikastola bat sortzearen ideia?

Idea Xabier Peñarena izan zen, bera tolosarra zen, baia guda ostean, Saran erbesteratu zen. Han Elvira Zipitria ezagutu zuen, Donostiako andereño ospetsua. Bueltan, etxera itzuli beharrean, Tolosara, Bilbora etorri zen. Bere anaiarekin lan egitera, aseguro bulego baten. Baina arratsaldetan, ikastola ireki baino lehen ikastegia zabaldu zuen. Gu euskaldunak ginen, baina etxeko euskara bakarrik genekien, analfabeta hutsak ginen euskaraz. Horregatik, jakin genuenean Xabier Peñak euskarako klaseak ematen zituela bere klaseetara joan ginen. Guk bertan dena ikasten genuen, aditza, deklinabidea etab. Horretaz gain, idazleak ere irakurtzen genituen, hauek aztertu. Hainbat urteetan erdaraz egin genuena, Xabierrekin euskaraz egin genuen.

Orduan, han genbilela, Xabierrek bere asmoa azaldu zidan, ikastola bat zabaltzearena. Berak askotan esaten zidan : “M^a Angeles etorriko zara pisu bat ikusten?” Batzuk garestiegiak ziren, beste batzuk desegokiak. Baina Xabierrek guraso talde bat sortu zuen eta hauen bitartez leku eder bat lortu genuen San Nikolas parrokian, goialdean egon ziren areto eder-eder batzuetan. Orduan Xabierrek esan zidan: “Orain zu Donostiara joango zara, Elvira Zipitriaren ikastolara eta han praktikak egin.” Nik esaten nuelako: “Zelan hasiko naiz ni klaseak ematen?” Egia esan, umeak oso gazteak ziren 3-4-5 urtekoak ziren , baina ez zeuden 6 urteko umerik.

Orduan, harantz joan nintzen, Elvira Zipitriarengana. Donostiako alde zaharrean zegoen kokatuta eskola, Fermin Calpeton kalean bigarren pisan. Han gelak, ilunak ziren eta oso txikiak. Umeak en “kuklillas” esaten den bezala zeuden eta andereñoa ere bai. Baina andereñoak berak zeukan gozotasuna eta erakargarritasuna umeekin...ni txundituta geratu nintzen. Orduan beste andereño batek, Karmele Esnalek, blog bat utzi zidan , abesti, ipuinez eta olerkiz beterik, haiek ere asko lagundu zidan.

Gero hona bueltatu nintzenean, San Nikolasen hasi ginen, Bilboko gerraosteko lehenengo ikastolan. Ume bat Getxotik etortzen zen , egunero bere

amak ekartzen zuen trenez. Bilboko alde zaharrekoak zirenak, oinez etortzen ziren, baina hemen ingurukoak, Indautxu, Abando eta honek guztiak eramateko autobus bat ipini genuen. Bilbotar bezala, autobusa arrosa zen..kar kar kar.

Lehenengo hiruhilabeteetan andereño bakarra ni nintzen , urrian hasi ginen, baina gero eskaera gehiago eta gehiago egon zirenez, urtarrilean beste andereño bat etorri zen ikastolara. Hau ere Xabier Peñaren eskutik, Agurtzane Alberdi izan zen.

Hasi ginenean, guk ez geneukan materialik, Elvira Zipitriak ere ez. Erabiltzen genituen materialak zotzak ziren, kanikak ere bai. Adibidez, kanikekin, buztinezko motzak batekoak ziren, eta leiarrezkoak, politagoak baina txikiagoak, hamarrekoak. Elvirak berak asmatutako abestiak ere abesten genituen, bere metodologia Maria Montesoriren metodologian oinarrituta zegoen baina berak euskarara moldatu eta bere abestiekin aberastu zuen eta bazegoen abesti bat kanikekin esan dudanarekin lotuta: Ume batek buztinezko hiru kanika bazituen, hiru bateko eta besteak bost . Beste batek hamarrekoa zuen eta berarekin trukatzeko, zenbat falta ziren? Hori egiteko abesti hau abesten genuen:

“Dendan gure Mikeltxu
kanikak trukatzen da
hamarreko polit bat
honen truk eman dezan”

Hau dena lurrean egiten genuen, zutundu egiten ginen bakarrik mahaian idazten genuenean, baina beste dena lurrean egiten zen. Eduki genuen liburu bakarra Xabiartxo izan zen. Klasean erabiltzen genituen gaiak egunerokoak ziren, batzuetan berez etortzen ziren eta beste batzuetan bilatu edo probokatu egiten genituen galderen bidez.

Urrian hasi zen taldean, ume guztiak ziran euskaldunak, baina bigarreanean erdaldunak bere egon ziran. Orduan horrek Agurtzanekin joan ziran, baina jolastorduetan, denak elkartzen genituen. Ordu hauetan guk egoten ginen beraiekin, jolasten, ipuinak kontatzen...eta oso pozik amaitu genuen ikasturtea, oso ondo joan zen, gainera San Nikolas parrokian antzerki areto bat egoan eta umeak antzerkiak egin zituzten ikasturtean ikasitako hainbat gauzekin; batek olerkia,

beste batzuk jolasak, beste batzuk abestiak antzeztuz. Esan bezala, ikasturtea oso ondo amaitu genuen, baina, zoritzarrez, udan salaketaren bat edo egon zen eta debekatu eta itxi egin zuten.

Astia eman zuen, Iralabarriko Franciskotarrak itxi zuten hurrengo urterako ikasgela batzuk ederrak eta oso onak. Baina bigarren urte honetan berriro ere salaketak egon ziran, polizia agertu zen, umeak ikaratu ziran eta kalean geratu ziran ikasturtea hasi barri. Ni hemen ez nintzan egon, ezkondu eta bi seme-alabak eduki nuelako.

Orduan Juli Berrojalbiz, lehenengo taldeko ama, eta Tere Rotaetxe, lehenengo taldeko izekoa, pentsatu zuten ume horiekin zer edo zer egin behar zela. Orduan umeekin taldeak egin zituzten eta auzo bakoitzean talde bat kokatu zuten, umeen etxeetan. Etxe hauek txandakatu egiten ziren. Andereño batzuenan izan ezik, nik adibidez, nire etxean hartzen nituen. Nirera hamazortzi ume etortzen ziran eta nireak beste bi, hogeit hamar umeekin egoten nintzan.

Umeak etxera heltzen zirenean, kaleko oinetakoak kendu eta etxeakoak jantzi egiten zituzten. Orduan bai, Elvira Zipitriaren antzera ematen genuen klasea, lurrean eserita. Baina, ezin zara imajinatu zer nolako gozotasuna ematen duen horrek, hain ondo egiten ginen...Nik gogoratzen dut hori oso polita izan zela eta horrela ibili ginen 4-5 urtetan. Garai honetan salaketarik ez ziguten ipini, nik atezainari hilero ematen nion diru apur bat eta bera pozik egoan. Etxeko batek esan eustan: “ Te voy a denunciar” Esan bai, baina ez zeuen egin, alde horretatik lasai egon ginen.

Baina zer gertatu zen? Ez genuela “libro de escolaridad”, bestela ez zegoan inongo arazorik, umeak oso pozik egon ziran. Orduan “El Panpin” izeneko tebeo bat egoan eta sari modura ematen genuen. Baina “libro de escolaridad” horrekin, pentsatu genuen ikastola bat sortzea, baia baiamenarekin, legeztatuta.

Ikastola hori Elkano 6 kalean kokatu genuen eta ikastolaren izena Resurrección Maria de Azkue izango zen. Juli Berrojalbiz izen zen zuzendaria. Inspektoreak esan zigun horretarako gauza bi behar genituela: Egunero bandera espainola ipini behar zela eta andereño guztiak tituludunak izan behar zirela. Titulodunak danok ginen, 6-7 andereño egon ginen. Bandera espainolarekin, batzuk konforme egon ziran, baina beste batzuk ez.

Orduan 1965-1966 ikasturtea etxeetan egin genuen, azkenengo hilabetea izan ezik, ekainean El Cano 6ra joan ginen, liburu ospetsu hori hartzeko.

2. Umeak ordaindu egiten zuten ikastolara joateagatik?

Bai, lehenengotan, San Nikolasen egon ginenean, Tere Rotaetxe arduratzen zen horretaz. Guri berak ordaintzen zigun, baina, udako kolonietan ez, han bazkaria eta dena guk ordaintzen genuen.

Baina nire etxera etortzen zirenean, zuzenean niri ordaintzen eustan bakoitzak 300 pezeta. Beste batzuk, kili-kolo zeudenak 150 eta beste batzuk ezer ere ez, horretan askatasun osoa egoan. Nire etxean, bik bakarrik ordaintzen zuten erdia eta ez zegoen ezer ere ez ordaintzen ez zutenak baina, beste etxe batzuetan bai.

3. Nor arduratzen zen etxe eskolen arteko harremanaz?

Julik egiten zuen lan hori gehien bat. Askotan, andereño gehiago behar zirela entzuten genuen, etxe eskola gehiago behar zirenean. Elkanora pasa ginean, gero Gran Viara...Orduan andereño guztiak ez zeuden alfabetatuta, horregatik ikastola amaitu eta Xabier Peña etortzen zen andereño horrek alfabetizatzerara. Gero Gotzon Garietaonaindia etortzen zen historiako klaseak ematera eta Manterolak literatura. Orduan aurretik erdaraz jasotako prestakuntza hori, euskaraz jasotzen zituzten.

Beraz, ikastolako lehenengo urtea, Tere Rotaetxen pisan eman genuen, Elkanon, eta gero Gran Vian beste bat ireki zen. Baina hor beste arazo bat etorri zen, gurasoek jolastoki baten falta igerrri egiten zuten, ez zegoelako kirol egiteko zelairik eta hori edukitzeko Bilbotik kanpora joan behar zen. Orduan beste guraso batek, Josu Beldarrainek, esan zuen: "Bi baserri daude salgai. Bat Lauron eta beste bat Zamudion". Gurasoak begiratzera joan ziran eta Zamudiokoa utzi zuten tontor baten gainean zegoelako eta hara heltzeko aldapa handi bat igo behar zelako. Laurokoa asko gusta zitzaien eta han sortu zen ikastola berria. Kooperatiba ere han sortu zen 1970.urtean, Lauro Ikastolako kooperatiba.

Baina esan behar dut ere, R.M.Azkue ikastolaren atzean, hainbat sortu zirela, bai Bilbon eta bai Bizkaia osoan ere. Deustun, Santutxun, Areetan, Algortan,

Getxon, Sopelan, Lekeitio... eta andereño horrek ere prestatu behar ziran. Nik gogoratzen dut nire etxera etorri zela Areetako lehenengo andereñoa, Algortakoa ere bai, Lekeitikoa...

4. Zein zen gurasoen papela eskolan?

Ba lehenengotan, egia esan ez dakit hau esan al dudan, baina emakumeak ziren langileenak, bai andereño bezala, zein laguntzaile bezala, zein ama bezala. Gizonezkoak Lauro ikastola sortzerakoa hasi ziran, kooperatiba sortu behar zan eta horretarako dirua behar zelako, bazkideak behar zira eta orduan bat-batean, gurasoak sortu ziran... kar kar kar

Laguntzeko, lan egiteko..prest zeuden guztiak emakumeak ziren, hori bai, salbuespen handi batekin: Xabier Peña. Xabier denetarako egoen prest, laguntzeko edo iparraldetik umeentzako materialak ekartzeko. Baina beste gizonik ez daukat gogoan, lehen esan ditudan bi abadeak kenduta, Gotzon eta Manterola. Askotan jaunartzeak egiteko etortzen ziren, lehen eskolan egiten zirelako.

5. Inspekzioen aurrean , nolako jarrera zegoen?

Baimena lortu eta gero, lasai egon ginen, inspektorea etorriz gero bagenuelako baimena. Baina aurretik, niri konkretuki ez zait inoiz inspektorea etorri. Ikastolan egon ginenean, nire gelan ez zegoen tokirik bandera espainola jartzeko, eta Txaro Ansorregik jarri behar zuen goizetan eta arratsaldeetan kendu, esaten zuen ondo zetorkiola zapatak garbitako.

6. Ze desberdintasun dago Donostia eta Bilboko etxe-eskolen artean?

Etxe-eskolak ginenean , guk hain bidea jarraitzen genuen. Gurean, goiz eta arratsaldez ematen genituen klaseak. Baina Elvirak, bi talde zituen, bata goizez eta bestea arratsaldez. Baina Elvira Zipitriak egindako bidea, nik uste dut, jarraitu genuela.

7. Zer eduki zuen lehenengo eskola horrek, gaur egungoak ez daukana?

Gaur egunera arte sortu diren eskola guztiak, lan handia egin dute, 25urtetik beherako gazteak denek dakitelako euskaraz eta nik hori sarritan proba egiten dot. Esate baterako, etxerantz noanean San Mamesetik urtetan dira eta beti galdetzen diet gazteari ia Athleticek zer egin duen. Denek erantzuten didate, irabazi edo galdu, denek dakie euskaraz, hori asko aurreratu da. Baina zer dago txarto

Gogoratzen dut, Beldarraintar neskatxo bi, nire etxera etortzen zirenak. Neskatoan horien neba, eskola publikora joaten zen. Aita harriturik egoan, neskatxoak etxera heldu eta euskaraz egiten zuelako, orduan mutila eskola publikotik atera eta ikastolara bidali zuten.

Gaur egun ostera, umeak uste dute euskara gela barruko hizkuntza dela, ingelesa izen al den moduan edo gure garaian greziera eta latin zen moduan. Gure ikastolatik atera eta segituan erdarara jotzen dute. Hori nik ez dakit zelan zuzendu al den, baina oso grabea da. Lehen kaleko giroa orain baino erdaldunagoa da eta ez zen hori gertatzen. Niri egun baten gertatu zitzaidan. Amarekin joan nintzen senide bat bisitatzen. Euskaraz berbetan joan ginen eta gizon batek nire amari esan zion: "Señora, hablele a la niña en cristiano". Baina nire amak jarraitu zuen euskaraz berba egiten, ni harrituta geratu nintzen. Amari esan nion "Entzun duzu zer esan deutsun gizon horrek?" Amak esan zidan kasurik ez egiteko, entzungor egin zuen.

Ni txikia nintzenean, kalean jolasten genuen eta joko denak erdararaz ziren, truqueme, el pñuelito...denak. Ez da orain bezala, umeak lan asko dituzte etxetik, nire ilobak behintzat beti dagoz lanean, ingelesa ez bada frantsesa da. Orduan, kalean egoten ginenean, amak ogitartekoa ekartzen zidan, beti euskaraz eta beste umeak esan zuen: "¿Sois aldeanas?" eta guk amari: "Ama, aldeanak gara? Eta amak erantzuten zuen: "Oba izango bagina, oba!"

Baina, lehen ibili garenarekin, nortzuk dira umeak euskaraz ez egitearen errudunak? Ba alde batetik, gu gara, euskaldunak, beti egiten ez dugulako. Adibidez, orain dela aste batzuk, anbulatoriora joan nintzan ordua eskatzera eta han zegoenarekin euskaraz berba egiten hasi nintzan eta bukatutakoan esan eustan: "Eskerrik asko! Euskaldun berria naiz eta etxean ez daukat norekin hitz egin."

Jendea badago ikasteko gogoarekin, baina beste batzuk badaude gurasoak euskaldunak direnak eta beraiek ez dakie. Askok esaten dute: "Es que en la época de Franco, no dejaban" baina Franko ez zen etxeetan egoten, nire aitak hori esaten zuen.

8. Kontrara, zer dauka gaur egungo eskolak, lehengoak ez zuena eduki?

Bueno, dena dauka. Lauro da adibide bat, zoragarria da. Ni han ez nintzen egon irakasle bezala, bai ama eta bazkide bezala. Igaz urrian, 40. urteurrena ospatu zen eta lehenengo bazkideei omenalditxo bat egin ziguten. Orain dena daukate! Euskara bakarrik faltan.

M^a Paz Basagoitiren elkarrizketa

1. Ze eskolatan ikasi zenuen zuk?

Lehenengo Elcano kalean Resurreccion Maria de Azkue ikastolan ikasi nuen eta bigarren mailan Gran Viara pasatu ginen, Cortefiel alboan dagoen portalera. Gero 1973an Lauro Ikastolara pasatu nintzen 1978.urtera arte, 8.maila bukatu arte. Gero Errekaldeko institutura joan nintzen.

2. Ba al dakizu zure gurasoek zergatik bidali zizuten eskola horretara?

Nire gurasoek ez ziren euskaldunak, nire aitita bat bai, baina gerra denbora tokatu zitzaien eta hemendik kanpo joan ziren bizitzera. Orduan nire amak txikitatik zekien euskara guztia, galdu egin zuen. Orduan beraiek nahi zutena zen seme-alaba euskaldunak edukitzea, horregatik ikastolaren aldeko apustu hori egin zuten eta orain Lauro den, Resurreccion Maria de Azkue ikastolara bidali gintuzten.

3. Nolakoak ziren ikasgelak?

Gogorapen nahiko iluna daukat, El Canokoa oso pisu handia zen, antzinakoak modukoa. Logeletan egoten ginen, txikiak ezin ginen patiora atera eta pasabideetan egoten ginen edo gelaren batean jolasean. Gela horiek, gela ederrak ziren. Gran Viakoa ere oso handia zen. Nire gelak kale nagusira ematen zuen, hori bai gogoratzen dudala. Nagusiak Plaza Eliptikara joaten ziren jolastera, baina gu ez ginen ateratzen.

4. Irakasleak nolakoak ziren?

Gogoratzen dut Maria Angeles Alberdi bermeotar bat gogoratzen dut, 3. Mailan, irakasle modura bikaina zena. Andereño Pilar, 2. Mailan eduki nuen Gran Vian , bere eraztunarekin gogoratzen dut, gero Lauron ere egon zen. Maria Carmen Arteagagoitia, Haur Hezkuntzako lehenengo mailan. Andereño Trini ere

gogoratzen dut, M^a Angeles Garai ere. Julita Berrojalbiz ere hortik ibiltzen zen, Tere Rotaetxe ere bai. Gogoratzen dut, jaunartzea egin genuenean, Monjas eta fraidez jantzita, beti ibiltzen zela laguntzen. Julita gutxiago gogoratzen dut.

5. Ze motatako edukiak lantzen zenituzten ikastolan?

“Kili-kili lan eta lan” gogoratzen dut. Materiala gehiena irakasleak eginikoa zen. Jakin dakit, nire ondorengoek “Saioka” liburua erabili zutela, baina nik ez. Gogoratzen dut, idazten hasi ginenean irakasleak eskuak erabiltzen zituela, keinuak egiten zizkigun, letrak nola idazten ziren gogorarazteko. Erregletak ere gogoratzen ditut, koloretakoak, matematika lantzeko. Bilbon, gogoratzen dut oso material gutxi genuela, gero Lauron, gaztelaniazko liburuak erabiltzen genituen, baina irakasleek euskaraz ematen ziguten klasea. Hor, egia esan, kriston nahasketa eduki genuen bi hizkuntzen artean.

Euskalkiei dagokionez, irakasle gehienek bizkaieraz hitz egiten zuten eta 1976-1977 irakasle gipuzkoarrak etortzen hasi ziren eta orduan batuera gehiago egiten zuten. Egia esan, nahiko “tomate” potoloa genuen.

6. Udako kolonietan parte hartu zenuen?

Ez, ni oso txikia nintzen. Gogoratzen dut, 9 urte nituenean, Sukarrietara joan ginela mojekin, baina behin bakarrik, nire etxean zazpigarrena jaiotzeko zegoelako eta nonbaiten utzi behar gintuzten. Hori izan zen aldi bakarra.

Irteerak bai egiten genituen, Bilbon nengoela Urkiolara joan ginela gogoratzen dut. Gero ikastolarekin, nagusiagoak ginenean, Donostiara joan ginen.

7. Ikastolak, oroitzapen onak ekartzen dizkizu?

Nik uste dut nire bizitzako urterik onenak izan zirela. Ez dauka zerikusirik oraingo ikastolarekin. Lauron oso gutxi ginen, berrogeita piku. Uste dut, lehenengo promozioan gela bat baino ez zela egon eta klase horretan oso jende gutxi egon zela. Geroago 200 edo 300 ikasle egongo ginen, baina, han beste askatsun bat zegoen, gaur egun hori pentsaezina izango zen. Irakasle bat faltatuz gero, jolastokira joaten ginen, greba asko egon ziren eta egun horietan ikastola zen

“Libre albedrio”. Nik uste dut, askoz ere askatasun gehiago zegoela, askatasuna edo kontrol falta. Orain ume guztiak oso zainduta daude, irakasle bat faltatuz gero, ordezkoa daukagu. Alde horretatik nahiko malgua zen ikastola, baina ederto pasa genuen, bikain! Esan dezakegu zela “ una selva feliz”, Sumerhil antzeko bat.

8. Eraginik al dauka ikastolako esperientzia horrek zure gaur egungo lanbidearekin?

Egia esan, irakaskuntzara kasualitates heldu nintzen. COUn nengoela kimika ikasi nahi nuen, baina etxeko baldintzak askotan ez dizute usten nahi duzuna egiten. Orduan amak esan zidan: “Magisteritza egin” eta egin nuen. Baina gaur egun asko gustatzen zait, gustura nago.

9. Orduan, 70.urteko Lauro konparatzen badugu 2014ekoarekin, ez dauka zerikusirik.

Ezer ere ez. Hainbat gauzengatik. Lehenengo eta behin, irakasleen prestakuntzagatik, irakasle asko, nire ustez, titulazio gabekoak ziren. Batzuen euskara maila ere, batzuen oso ona zen, baina beste batzuetan nahiko eskasa. Gogoratzen dut, heziketa fisikoko irakasle bat eduki genuela euskararik ez zekiena. Beste batekin, klaseak erdaraz egiten ziren, guztiz desberdina da.

Desberdintasun hori ere ikastolara bidaltzeko helburuan ikusi dezakegu. Lehen, gurasoak beraien seme-alabak ikastolara bidaltzen zituzten, seme-alaba euskaldunak eduki nahi zituztelako, nortasun kontua zen. Baina gaur egun, salbuespenak salbu, askok ikastolara bidaltzen dituzte umeak etorkizuneko lanbideetan euskara jakitea derrigorrezkoa izango delako, curriculumean jartzeko. Hori aldatu egin da.

10. Irakasle guztiak ziren emakumeak?

Bilbon nik ez dut maisurik gogoratzen, denak emakumezkoak ziren. Lauron nengoenean bai. Orain burura datorkidan lehenengoa, Joxe Mari Mendia da. Jaime

Martinez ere, ikastolako zuzendaria izandakoa edo Angel Zelaieta, Mungiko Patxi Ateka, batzuk badatorztik burura. Baina gutxi, gehienak emakumezkoak ziren.

11. Zer dauka gaur egungo ikastolak, lehengoak ez daukanak?

Desberdinak dira, gizartea ere desberdina delako. Orain dena dago oso antolatuta, material guztia euskaraz dago, curriculumak esaten dizu ze eduki landu behar diren... Askoz ere bitarteko gehiago daude, askoz ere hobeagoak. Alde horretatik asko hobetu da ikastola. Nire garaian, nire sentsazioa zen, bakoitzak al zuena egiten zuela eta ziur nago dena oso ondo edukiko zutela pentsatuta. Batez ere, beste ikasle guztien prestakuntza berdina eduki behar genuelako, titulazioak lortzeko. Baina, beste lasaitasun bat zegoen, egia da ere, askoz ere eduki gutxiago lantzen genituela. Gaur egun, ostera, eduki piloa landu behar dira, dena dago guztiz antolatuta. Alde horretatik ez da hobetu bada, baina bai egokitu egin dela gaur egun dauden eskakizunetara.

12. Kontrara, zer botatzen duzu faltan lehenengo ikastolatik?

Nik uste dut, lehen esan dizudan lasaitasuna dela. Lasaitasun gehiagorekin egiten ziren gauzak, askoz ere gauza gutxiago egiterakoan, lau gauza ikasteko denbora gehiago genuen. Orain, gauza asko eskatzen ditugunez eta gauza asko ematen ditugunez, azkenean dira eduki, eduki, eduki...asko. Agian eduki gutxiago emanda eta lasaitasunez lan eginez, toki berera heldu ginatkeela. Gaur egungo umeak, gauza gehiegi dituzte, ekintza asko egiten dituzte. Adibidez, nik musika egiten nuen, baina ez da ikastola, gero eskolaz kanpoko ekintzak, gero musika eta gero etxerako lanak. Adibidez, nik ez dut inoiz gogoratzen etxerako lanak egin ditudanik institutura heldu arte. Agian egongo ziren eta nik ez nituen egiten..kar kar hori ere izan ziteken. Prisa hori ez zegoen eta hori ikasleentzat askoz hobeagoa zen.

13. Emakumeek gizezkoekin konparatuta, badaukate funtzio konkretuagorik?

Gaur egungo eskolan ez dut uste, agian lehen nabarmenagoa zen. Lehen gizezkoen eta emakumezkoen papera gehiago bereizten ziren. Orduan, arraroagoa zen gizezko bat ikustea klasea ematen. Maisuak bazeuden, baina, mutilen eskoletan, fraide edo abadeak zirelako. Baina, gaur egun ez dut diferentzia handirik ikusten. Nik uste dut ez dela generoaren gauza, baizik eta zu zeu nolakoa zaren eta nola jokatzeko duzun ikasleekin. Zentzu horretan, uste dut, askotan pentsatzen dugula gizezko askori alde emozional hori falta zaiela eta itxiagoak direla, baina denetarik dago. Badaude andereño edo maisu batzuk ez direnak euren lerrotik ateratzen eta kontrara, badaude maisu eta andereño oso hurbilak direnak eta lotura handiak lortzen dituztenak beraiekin. Beraz, nik ez dot uste desberdintasun hori dagoenik.

14. Nolako presentziak zuen euskarak ikasleen artean?

Bat ere ez, "bamos a antzerkituar" esaten genuen, oso euskara gutxi egiten zen gure artean. Gaur egun, orain dela bi urtera arte, euskara piloa entzuten nuen, baina azkenengo urteetan erdara gehiago entzuten da klase barruan. Baina momentu horretara arte guk egiten genuenaren boskoitza edo gehiago. Baina guk ez genuen euskaraz hitz egiten, inguruak ere ez zuen laguntzen, telebista, liburuak..dena erdararaz zelako.